

EUSKO JAURLARITZA, GENERALITAT ETA XUNTA ELKARLANEAN HIZKUNTZA NORMALIZAZIOAREN ALDE

Hiru gobernuen hizkuntza politikarako ordezkariak
lan-mahaia osatu dute hitzarmena prestatzeko



Eusko Jaurlaritzaren, Galiziako Xuntaren eta Kataluniako Generalitatearen Hizkuntza Politikarako ordezkariak (Patxi Baztarrika, Marisol Lopez eta Sixte Moral, hurrenez hurren) elkarlanerako hitzarmena landu zuten iragan uztaillean Donostian egindako bileran.

Bertan hizkuntza politikaren alorrean elkarlana garatzeko marko orokorra eta metodologia finkatzeko borondatea adierazi zuten. Hitzarmenak hiru urteko iraupena izango du eta urtez urte garatuko da dagokion protokoloaren bidez. Hizkuntzen Europako Kartaren estatuan betetze mailari buruzko azterketa egitea izango da osatu den lan-mahaiaren lehenengo egitekoa.

Hiru gobernuen arteko elkarlana ez da berria, nahiz eta era askotara izan. Esaterako, behin baino gehiagotan jardun dute lanean binaka eta, adibidez, Jaurlaritzak eta Generalitateak 2005-2008 elkarlana hitzarmena itxi zuten iaz. Era berean, Generalitateak eta Xuntak lankidetzaren protokoloa itxi berri dute. Orain, ordea, bi ez ezik hiru gobernuak ariko dira lanean, batera, euskara, katalana eta galegoaren bizi-indarra are-

agotzeko batean eta bestean gauzatu dituzten esperientziak trukatzeko asmotan.

Horrekin batera, beste helburu bat ere badu elkarlanerako sinatu den hitzarmenak; hau da, Estatuako herri aginteek lau hizkuntza ofizialen (gaztelaniaren, gailegoaren, euskararen eta katalanaren) berdintasunean oinarritutako jarrerak ezartzea Estatuaren administrazioan. Estatuan bai Europako erakundeetan hizkuntza koofizialtasuna nagusi izan dadin da asmoa. Hiru erakundeek ezinbesteko jotzen dute bai Konstituzioak eta bai Espainiako eta Europako parlamentuek onartutako eleantzasuna betetzea.

Datu objektiboei dagokienez, Espainiako estatuan, biztanleriaren ia % 40k bi hizkuntza ofizial ditu. Espainiako estatua, bistan da, eleaniztuna da. Jaurlaritza, Generalitat eta Xuntaren iritziz "egoera erreal horri argi eta garbi heldu beharko liokete Estatuako aginteek ere, besteak beste legezko estatua eta, hizkuntzari dagokionez, benetako estatua inoiz bat etor daitezen". Ondorioz, hizkuntza politikarako hiru ordezkariak zera erabaki dute, alegia, galegoaren, katalanaren eta euskararen egoerak normalizatzeko neurri eraginkorrak eskatzea Estatuako herri aginteei, tokian tokiko legeria bete dezaten administrazio periferikoetan, Kongresuan, Senatuan, Justizia administrazioan eta Estatuako hedabide publikoetan.

Honakoak dira orain artean aurreikusitako lan lerro nagusiak:

1. Estatuako Administrazioan eta Europar Batasunean hizkuntza ofizialen babeserako eta sustapenerako neurriak bultzatzea.
2. Hizkuntza politikaren inguruko informazio trukaketa.
3. Esparru sozio-ekonomikoa.
4. Helduen hizkuntza irakaskuntza.
5. Terminologia.
6. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia.
7. Hizkuntzaren erabilera sustatzeko sentsibilizazio-estrategiak, dirulaguntza-politikak eta sustapen-lanak elkartrukatzea.
8. Kataluniako, Galiziako eta Euskadiko hizkuntzen eta kulturen nazioarteko zabalkundea.

EUSKARA EUROPAR BATASUNEAN

Hizkuntza-aniztasunaren errealitatea onartzen ari da EB

Euskara Euskal Herriaren berezko hizkuntza da eta, Autonomia Estatutuak (1979) aitortzen duen moduan, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala da Euskadin. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak buru-belarri ari da lanean euskararen erabileraren normalizazioa lortzeko bere eremuan, bai eta haren aitortpena eta errespetua lortzeko bere lurraldetik kanpo. Asmo hori gogoan, Eusko Jaurlaritzak eta Eusko Legebiltzarrak behin baino gehiagotan aldarrikatu dute euskarak izaera ofiziala izan behar duela Europar Batasunean (EB).

Europar Batasunean, asko kostata baina hizkuntza-aniztasunaren errealitatea onartzen ari da, poliki bada ere. Onarpen honetan, Europako Batzordeak Erregio Hizkuntza edo Hizkuntza Gutxiagotuen Europar Ituna (1992) onartzeak berebiziko garrantzia izan zuen. Geroztik, 2005eko ekainean, EBko Kontseiluak, Europar Batasunaren hizkuntz aniztasunean oinarrituz, eta hiritarrak europar egitasmoarekin identifika daitezten, europar erakundeetara beste zenbait hizkuntzatan zuzentzeko aukera ematea onartu zuen, honako hiru eremutan onartu ere:

- Europar Legebiltzarrak eta Kontseiluak koerabakitzeko prozeduraren bidez hartutako disposizioen xedapenak argitaratzea.
- Ahozko partehartzeak Kontseiluaren saioetan eta, hala dagokionean, EBren beste zenbait erakunde eta organotan.
- Hiritarren idatzizko komunikazioak Batasuneko erakunde eta organoekin.

Hau guztia, euskara eta bestelako hizkuntza gutxituak Europan aitortuak edo onartuak izateko bidean, aurrerapauso -txikia- bada ere, aurrerantzean ere gogotik lan egiten jarraitu beharko da.

Egun, 50 milioi europarretik gora dira beren ama-hizkuntza edo lehen hizkuntza beren lurraldeko hizkuntza dutenak, estatuko hizkuntza nagusiarekin batera. Elebidunak dira jaiotzez. Nahitaezkoa zen, bada, EBko Kontseiluak Europar Batasunaren hizkuntza-aniztasuna onartu izana.



Aurrerabideak eta gabeziak

EBk hartutako neurrien ondorioz, euskararen erabilerari dagokionez, begi-bistako aurrerapausoak izan dira, ez bairik gabe. Hala ere, oraindik ere badira zuzendu beharreko zenbait gabezia eta ahulezia. Hona hemen garrantzitsuenak:

- Europar Konstituzioaren euskarazko itzulpenak ez du legezko baliorik.
- Europar Batasunak ez du herritarrekiko komunikazioen itzulpenaren erantzukizunik hartzen, ezta Legebiltzarrak eta Kontseiluak elkarrekin onarturiko testuen itzulpenaren ardurarik ere.
- Ahozko adierazpenen itzulpena lortzeko ez da nahikoa hori eskatu behar izatea; giza baliabide eta baliabide materialaren baldintzapean ere badago.
- Onarturiko sistema Kontseiluak, Erregioetako Batzordeak eta Europako Batzordeak bakarrik aplikatzen dute oraingoz. Oraindik ezin dira aplikatu Europar Batasuneko gainerako erakunde eta organoetan: Europako Legebiltzarrean, Auzitegian, Kontu Epaitegian, Ekonomi eta Giza Batzordean eta Arartekoan.



HAKOBA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO KOORDINAZIOA HIZKUNTZA POLITIKAKO GAJETAN

Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordeak (HAKOBA) aurtengo lehenengo bilera egin zuen joan den ekainean. Bertan, erakundeen artean landu beharreko gaiak eta proposamenak aztertu zituzten, eta hiru urteko jardura programaren ildo nagusien inguruko gogoeta egin zen. Batzordean, EAEko erakunde nagusiek hurrengo hiru urteetarako lan-ildo bat adostu zuten, tartean Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko III. Plangintzaldiaren jarraipen bateratua. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza da administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko III. Plangintzaldiaren tarteko ebaluazioa egiteko lanetan. Tarteko ebaluazio hori dela eta, egoki ikusi da erakundeen arteko teknikarien mahaia osatzea, besteak beste, irizpide-trukaketa ziurtatzeko eta koordinazioa areagotzeko.



moen eta zuzenbide pribatupeko ente publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza-irizpideei buruz onartu zuen akordioa ere aurkeztu zen HAKOBAn bileran.

Berpiztu eta indartu

Erakundeetako ordezkariek beharrezkotzat jo zuten herri aginteen arteko bilera-organo hau berpiztu eta indartzea. Hizkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarriak adierazi zuenez, "euskararen sustapena bultzatuko badugu, funtsezkoa da herri aginteen arteko koordinazioa ahalik eta estuena izatea. Euskararen erabileran aurrera egiteko ezinbesteko baldintza da herri aginte guztien konpromiso eta inplikazioa lortzea". Sailburuordearen iritziz, herritarren inplikazioa erdiesteko, beharrezkoa da herri agintek ahal den eraginkorren jokatzera bere hizkuntza politika diseinatu eta garatzeko orduan.

Horri dagokionez, gutxienez hiru hilabetetik behin osoko bilkurak egitea adostu zuten. Horietan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren udal-mailako hedapena aztertuko da. Beste aztergaiak ere izango da, ordea. Adibidez, eginahalak bateratuko dituzte euskera lan munduan bultzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005eko abenduan agintaldi honetarako aurkeztu zuen proiektuari jarraiki.

Horri dagokionez, gutxienez hiru hilabetetik behin osoko bilkurak egitea adostu zuten. Horietan, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren udal-mailako hedapena aztertuko da. Beste aztergaiak ere izango da, ordea. Adibidez, eginahalak bateratuko dituzte euskera lan munduan bultzatzeko, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2005eko abenduan agintaldi honetarako aurkeztu zuen proiektuari jarraiki.

Patxi Baztarrika sailburuordeak berretsi zuenez, gakoa ahaleginak batzea eta irizpideak partekatzea izango da. "Batzorde honetan inor ez dago soberan, ezta erakunde bat ere, eta berdin du herri agintea zein koloretakoa den".

Diru-laguntzak eta hizkuntza-irizpideak

HAKOBAko erakundeek euskara sustatzeko dituzten laguntza-deialdiak aztertzen hasi ziren bileran, euskararen sustapena herri-aginte guztiei baitagokie. Jakina denez, Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiek eta Udalek hainbat egitarau eta egitura diruz laguntzen dituzte, era batera edo bestera.

Hori horrela izanik, eta erakundeon arteko koordinazioa hobetzearren, komenigarritzat jo zen aztertzea zein eratako programak, zein irizpideekin eta zein mugarekin laguntzen diren diruz deialdi publikoen bitartez.

Era berean, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an eginiko bilkuran EAEko Administrazio Orokorren eta horren erakunde auto-

Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA)

Herri Aginteen arteko Koordinaziorako Batzordea (HAKOBA) 1997 urtean eratu zen. Haren helburu da hizkuntza politikako gaietan eskumenak dituzten Herri Aginteen arteko elkarlana areagotzea, Euskararen Aholku Batzordearekin batera, HAKOBA n Kultura Saileko Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Ogasun eta Herri Administrazio Saila, hiru Foru Aldundiak eta hiru hiriburuetako udalak daude ordezkatuta; erakunde bakoitzak ordezkarik politikoko bat izendatu ohi du.

Epealdi berri honetan, aipatutako erakundeez gain, udaletako ordezkaritza zabalagoa bermatuko da eta EUDELeK (Euskadiko Udalen Elkar-teea) ere ordezkarria izango du batzordean.

Gaur egun, honako hauek dira HAKOBAko kideak:

- Miren Azkarate Villar, Kultura sailburua
- Patxi Baztarrika Galparsoro, Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- Joseba Alcalde Amutxastegi, Jaurlaritzaren Lehendakariordetzako idazkari nagusia, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren ordezkarria
- Pedro Maria Ochoa Bernales, Hezkuntza sailburuordea, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ordezkarria
- Jose Mari Berasategi Zurutuza, Euskara Zerbitzuko burua, Arabako Foru Aldundiaren ordezkarria
- Gotzon Lobera Revilla, Euskara Sustatzeko zuzendari nagusia, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkarria

- Xabier Huitzi Belamendia, Euskararen Normalkuntzako zuzendari nagusia, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkarria
- Ana de Castro Rubalkaba, Euskara saileko zinegotzi ordezkarik laguntzailea, Bilboko Udalaren ordezkarria
- Ramon Etxezarreta Aizpuru, Kulturako zinegotzi ordezkarria eta Donostiako Udalaren ordezkarria
- Alfredo Iturricha Yániz, Lehendakaritza arloko zinegotzia eta Gasteizko Udalaren ordezkarria
- Miren Dobaran Urrutia, Berangoko alkatesa, EUDELen ordezkarria
- Miren Mateo Aierza, Koordinaziorako zuzendaria eta HAKOBAko idazkarria

KULTURA SAILAREN ETA ONCE ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

Euskarazko literatur lanak egokitzea da asmoa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, euskara dakiten baina ikusmen urritasuna duten euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatze aldera, hitzarmena sinatu du berriki Espainiako Itsuen Elkarte Nazionalarekin (ONCE), euskarazko literatur lanak pertsona horien beharretara egokitzeko asmotan.

Oraingoa ez da bi erakundeek gisako akordioa sinatzen duten lehenbiziko aldia, 2000-2002 urte bitartean ere diru-laguntza (68.000 euro orotara) jaso baitzuen ONCEk, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu eta bere jardun-eremuan euskararen normalizazioa sustatzeko asmoz.

Oraingo hitzarmenaren bidez, ONCEk euskarazko hirurogeita hamabost literatur lan moldatuko ditu braille sistemara eta Daisy sistemara, ikusmen urritasuna duten pertsonen irakur eta entzun ditzaten.

ONCEk hartu dituen konpromisoen artean dira, aurrekoen gain, berak argitaratzen duen *Haizea* soinudun aldizkari elebidunaren bi zenbaki

ekoitzea, besteak beste, literatur lan hauen zabalkundeari eragiteko. Bestalde, euskara dakiten ikusmen urriko pertsonen artean oraingo liburu-funtsaren berri jakinaraziko du, bai eta hitzarmen honen ondorioz sortzen den funtsaren berri ere. Gainera, formatu analogikoan grabaturik dauden oraingo literatur argitalpenen eta hitzarmen honen ondorioz sortzen direnen mailegu-sistema bultzatuko du ONCEk, euskara dakiten ikusmen urriko pertsonen, nahi izanez gero, eskura ditzaten.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren bitartez, 57.000 euro jarri ditu asmo hau gauzatu ahal izateko. Ikusmen urriko pertsonen beharretara egokitzeko diren titulu eta egileen balizko zerrendan ageri dira, besteak beste, Bernardo Atxaga, Ramon Saizarbitoria, Anjel Lertxundi, Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi, Karmele Jaio eta beste askoren lan zahar eta berriak.

Gaur egun, ONCEk soinu bidezko euskarazko 207 liburu ditu eta 42, berriz, braillez idatzita.

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: berripapera@ej-gv.es